

ZARR

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
40n. ZENBAKIA
ZEZEILLA
(OTSAILLA)
— 1981 —**



**GALDAKAO'KO ANDRA MARI
EDER-LANA, TOKI EDERREAN**

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Couje en nosotros

Zere urtea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**

I KAST

AIZTUTE 111

IZKUNTZA BIZI

Euskaldunak ez gara gauza askotan eritxi batekoak, baiña benetako euskaldunak onetantxe bai ez daukagula zalantzarik: Euskerea galdu ezker ez dago Euskalerririk edo euskerea il ezker Euskalerria il da.

Baiña noz ilten da izkuntza, gutzat euskerearen azkena noz izan leiteke?

Erdera egiten dauan bakoitzean euskalduna bere izkuntza ilten dago. Izkuntzak ilteko bidea, ez erabiltea da. Orduan euskerea bizitea nai ba'dogu, egin dagigun berba euskeraz, idatzi dagigun euskeraz. Ori egiten dogunean, euskerari bizia luzatzen gabiltz.

I KASTEN

Euskereak ba-ditu ikasleak. Batzuk dakiena sakontzen eta beste batzuk ez dakiena ikasten. Eta on itxaropen-bidea da.

Ikastola batzuk onetan Ian zoragarria egiten dabe: Urteetan ekin eta ekin ibilli ondoren, ikasleak erreztasun osoaz euskerea erabiltea lortzen dabe. Eta edozelako gaiak erabilten dabez euskeraz.

Beste ikastola batzutan motelagoak izan dira, ez dakienai geiegi begiratu dautsee, eta zer lortu dabe? Dakienak aurrerapen gitxi eta ez dakienak len lez jarraitzea.

Laterri-eskoletara be asi da sartzen euskerea. Ez da Ian erreza. Baiña gaur baiño be errezago biurtuko da eskolak geure esku izaten doguzenean. Eskolan aurrerantz emoten diran oinkadak, gauza ederra dira aurrerabide onetan, naizta itxura baten apalak dirala uste izan.

Ugaritu dira, baita, ikastaroak, ikasturteak eta gau-eskolak be. Benetan Ian onuragarria egiten dabe geienetan, baiña gramatikeari baiño berba egiteari bagitu bear jako geiago. Nik uger egiteko arauak ondo ikasi arren uger egiten ez ba'dot ez dor sekula ikasiko ut gainean ibiltzen. Gramatikako arauak ondo ikasiaz, berba egiten ez ba'dot ez dakit euskerarik, ez dot ikasiko.

Olako ekiñaldietan, euskera berba egiten dabena onutxu bat: Idatzi ta idatzi da zuen lana, baiña idazten dozuen guztia irakasleak zuzendu dagiala eta zeueri esan beti utsak zertan izan diran.

AIZTUTEN

Alderdi on guzti orreik kontuan artu arren. Zori txarrez ezin ukatu euskerea atzera doala eta arin joan be. Ori baiezteko, gaurko gazteai begiratzea da naikoa: Gurasoak ba-dakie, baiña gazteak erderaz erantzuten dautsee, baserrietan naiz arranondoetan.

Orreik euskera aiztu egiten dabe, ikasi barik. Euskera ilten diardue.

Zergaitik dan ori?

Gaurko gazte askok, eta zarrak be ez gitxik, euskal kontzientzia galdu dabelako edo galtzen diarduelako. Badago or urrutikuskin edo ikus-irradiaren indarra, kalearena, kanpotik etorritako erdeldunena... Eta olako giroan Eleizeak berak be, antxiñatik euskerearen gordeleku izan dan Eleizeak be, ezin lortu izango dau. Zer egingo dau ba, euskerea ulertzen ez dabenean gazteen aurrean?

BERBA EGINZ

Egoera larri orretan eta euskerea bizitea nai dagunok, ez daukagu beste biderik: euskeraz berba egin, euskera errezez, errikoiz, taldeetan eta ikasturteetan berba egitea ta idaztea erreztu, kasetten bidez ez dakienak, ikasteko zaletasuna sartu.

Urte asi-barri onen azkenean baiezkorrangoak izateko zioak izango al doguz. Argi apur bat agertu da, ia aurten eguzki dizdiratsua agertzen dan.

ANTONIO OKENDO

Zelango aretxa, alango ospala. Aretx oneko ospala zan Antonio. Aren aita Migel Okendo, Errekalde itsasgizon ospatuaren laguna zan. Arekin batean, Ontzidi Nagusiaren buruzagi izandakoa. Eta arekin bat, bertan ondutua be.

Eta umezurz geratu zan amaika urtekoa zala, bere ama Maria Zandategi'rekin. Bere aitaren zoritxarrak ez eban kikildu gure ume sosterora. Eta itsasgizon egin zan amazpi urterako.

Kapitan maillara igona ta itsasontzi biren buru egifia, zan ogei ta zortzi urtetarako.

LENENGO GARAITZA

Ingeles ta Holandar itsaslapurrez beterik egozan gure itsasbazterrak, gure Ontzidi Nagusia galdu zan ezkeroztik.

Alako ingeles itsasontzi lapur bat ebillen Cadiz inguruan sekulako kalteak egiten. Gure gazteak ikusi, ta arengana abiatu, arerioz bete eutsoezan ontzigaiiak.

Ordutara luzatu zan eskumeneko euren borroka Iatza. Ingelesek azkenean amor egin, eta igesiari emon eutsoen. Bahia Okendo, aren atzetik abiatu, ta agiñera jausirik, arin menperatu eban. Eta ontzi ta ontzikoak atxillo arturik, Cadiz'ko kaiara eroan ebazan guztiak.

BRASIL'EN

Beste garaitza asko ta asko lortu ebazan Okendo'k, eta almirante maillara igon eban erregek. Bizkai'ko ontzidiaren almirante izan zan, lenengo; Cantabria'koarena, urrengo; ta itsaso zabalekoa, azkenik.

Holandarrak Brasil'eko itsasbazterrak ondutzen ziarduela, ta arako deia izan eban, urren. Hanspater zan Hondarren buru, ta gure ontziak arengana joiazela ikusirik, laster asi zan dunbadaka bere kañoetzarraz.

Gureak erantzun, eta bareala zabaldu zan eraso. Alako baten, kaño-bala bat sartu zan Holandarren ontzi-barrura, bertoko sutauts-gela jo, ta an doa ankaz gora, milla zatitan apurturik.

Sutu da Hanspater ori, ta Okendo'gana zuzen-zuzen. Jotzen dau bere ontzi-musturragaz, ta an geratzen dira ontzi biak katiaturik.

Eta ango arkabutz eta ezpaten dantza! Hanspater orrek amor emon eban azkenik, eta igesi joan gura. Alperrik, baiña! Okendo'k lotuta eukan aren ontzia, ta an galdu zan koitadua.

FLANDES'EN

Flandes'ko gerra luzatu ta luzatu, ez zan sekula amaitzen. Eta ara bialdu eban erregek gure Okendo. Au zan

oraingo aren eginbearra: Flandes'tar gaixoai guda-izkillu ta gudari barriak eroatea.

Okendo joian bere ontzi nagusian, guztien aurretik. Eta Dunas, Itsas-kaiera urreratzean, ona Holandarren euren ontzi mordoaz, biderdi urtenda.

Okendo'k aurrera egin nai ez, ta bertan gelditu zan, bere lagunak zain. Beraganatu ziran, orduan, Holandarrek, su ta ke. Eta alako bat naiko urreratu zanean, Okendo'k dunbadako bat jaurti, ta ankaz-gora bota eban arerioen ontzia.

Bere lagunak etorri jakozaneko, berrogei gorpu eukan Okendo'k bere ontzigaiian, eta ontziko aize-oial guztiak zarpildurik. Alan bere, iges joanak ziran Holandarrek.

BORROKA

Ez luzarako. Laster etorri ziran beste ontzi geiagoz indartuta; eun eta amaika ontzi eukezan guztira; eta ogei ta zortzi, gureak.

Eta, jakiña, kikildu egin ziran gure mutillak. Kosta jakon Okendo'ri bere mutillak bizkortzen; baiña, lortu eban, azkenik.

A zan borroka a! Okendo ausartu zan lenen, soinburdin barik, su ta ke; ta aren atzetik joan ziran beste guztiak.

Egun osoa iraun eban borrokeak. Garaille urten ziran gureak ankartzetan, eta urpetara bota ebezen, dunbadaka, arerioen ogei ontzi. Eta andik anka egin eben Holandarrek, illuntzean.

Flandes'ko Mardike kaian sartu zan, orduan, gure Okendo. Kañoiak egindako milla zulo baiño geiago eukan aren ontziak. Holandarren buruzagia, barriz, epaitua ta zigortua izan zan.

ERIoTZA

Ez eban Okendo'k lo andirik egin, azkeneko berrogei egun areitan, eta oso makalik egoan. Sukarrak jo eban, ondoren; eta gaisotu egin zan. Eta auxe iñoan, leiotik bere ontziari begira egoala:

«Ez dagokit, orain, iltea besterik, nere ontzi ori ta aren ikurrin ederra ona osorik ekarri ondoren».

Orrela emon eban negua, erdi zutik erdi ogean. Eta ondaturako ontziak konpondu ebazanean. Españaruntz abiatu zan. Donosti, bere erri parera eltzean, argitu zan bere arpegia. An sartu, ta bere osasunari begiratzeko esan eutsoen bere lagunak.

Ez eban, baiña, onartu lagunak iritxia, ta Koruña'ra zuzendu zan, erregek emondako agindua betetearren. Andik egun gitxira il zan.

IZKUNTZEN ARTEAN

ANTXIÑAKO AMESA

Gaztetan eta euskera berba egiteko giro txarra egoan aldi aretan, guda-ostean, bard pozgarri bat entzun neban: Jesus'ek GURE AITA deritxogun otoitz ederra irakatsi eban tokian, Orio-Mendian, ogei la amabi izkunzatan eta zoi erreetan idatzita dagoala otoitz au. Euskeraz be bai.

Eta beli izan dot, arrezkero, otoitz orren argazki bat eskuratzeko guraria, eta, a! ba'da, bertara joan eta ikustekoa be bai.

JERUSALEM'EN

Urte bat igaro da Lur Santua ikertera joatekoa erea izan nebala.


A nire poza! Zoietako otoitz euskaldun on ikusteko erea izango neban! Bahia ez. Nire lagunak ez eben agerlu ara joateko gogorik eta gidariak be ez euskuen eleiza on erakutsi.

Neuk ez nekian nondik ibilli... eta ikusi bank etxera. Eta argazkirik be eskuratu bank.

BILLA TA BILLA

Oraintsu neure adiskide aundi bat joan zan ara eta mezede au eskatu neutson Lem oa'ko abade dan Erezkano'lar Jose Luis lagun onari: Argazki on ekarteko andik gomutaki lez. Baietz esan eustan eta bertan atera bai argazkia, baiña oraindiño ez dot eskuratu.

Ez dot orregaitiño ilxaropena galdu eta argazkiaren billa jarraitu dot.



OTOIZLARI-ALDIZKARIAN

«Iratzeder» Belok'eko abat eta neure adiskide aundi dodanak an eurak ateraten daben OTOIZLARI aldizkaria bialtzen daust eta nik ZER bialtzen dautsot ordez. Eta azkenengo zenbakian ara non ikusten dodan pozez beterik zoi eder arein argazkia «Aita Gurea» idatzita dauala.

Eta antxe azaltzen dau izenpetu bank datorren idaz-lan batek zelan lortu zan otoitz on an ipintea, baiña geiegi zeaztu batik.

ZELAKO EUSKERAZ

Otoitz orrek ba-dauko bere kondairea.

Gaurkoz, aztertu dagigun pizka bat euskera au:

«Aita Gurea» da, España'tik artutakoaren erara eta ez «Gure Aita» Prantzian esaten dan erara.

«Donetsia» ilza sartzeak, barritzaillen edo sabindarren eragiña erakusten dau.

«Erreguekuntzea» gaur ilz oitueza jaku.

«Zelan zeruan alan lurrean», erde!-kutsu geiegiko esaldia da.

«Parketan» itzak ez dausku belarria ondo joten.

«Ezpabe» on be erdel kutsu geiegikoa da.

Eta idazkera-aldezik gauza arri-garriak daukaguz: «erregue», «eguin», «oguia», «leguez», «ichi», «gachetik».

Jokera bi agertzen dira ba or, bata sabindarren aurrekoa eta sabindarrena bestea eta ortik atera lei nozkkoa dan: gizaldi onen asierea baiño zerbait lenagokoa.

Baiña urrango zenbaki balen zeatzago azaldu al izango dogu kondairea, Arana'tar Sabin'en Ian Guztietan 1956-1969 orrialdeetan agertzen dan lez.

«Otoizlari» aldizkariak 1901 'eko eskutitz bat agertzen dau, Joanategi-ren eskutitz bat, eta orduan oraindik an ipiñi batik egoan, baiña ba-leiteke aurrerago idatzia izatea.

OLAZAR'tar Martin'ek


LIBURUAK

I DAZTI BARRI BI

Liburu barri bi eldu jakuz eskuetara: Jesus Legarreta'ren EUSKALDUNAK eta Beobide'tar Jose Luis'en EUSKALERRIKO IPUIÑAK.

Biak dira ikastoletara eta mailla orretan dagozan euskaldunentzat egiñak. Beobide'rena irakurgai lez artzekoa da, Legarreta'rena, barriz, ikasgai lez be egokia.

EUSKALDUNAK



Irakaskintzan eta idazletzan jo ta ke dabil aspaldion gure Jesus Legarreta, kondaira-gaietan baimendun dogun irakaslea ta ZER'en lankidea.

Liburu au giza-iztia edo antropolojia zeatu ta ikasleen maillan jarteko da, eta berak sarreran diñoan lez, «idazlan oneik sarritan euskaldun barriontzat euskera ederregian idatzita aurkitzen dira», «au dala-ta aal danik eta euskera errezenean idazten saiatu naz».

Antropoloji-lanak erriratzea da ba idazlearen elburt a, eta oso ondo lortzen dau bere aldetik. Izango al ditu irakurleak ugari!

Euba'ko Pasiotarrak argitaratua da.

GAIK

Iru zati ditu liburuak: Bizitza, siniskerak eta oitura-izakerak.

Bizitza-arloan, jaiotza, ezkontza, etxea ta eriotzea aztertzen ditu, orretan doguzan oiturak agertuz.

Siniskeretan, kondaira aurrekoak, kristiñautzea, sorgiñak, Olentzero ta Donibane, zuaitzak eta egutegia aita-tzen dira.

Eta oitura-izakeretan, jan-edanak, osabideak, igarobi-deak, indianoa, lanak, etan olakoak.

Euskal antropoloji edo giza-iztiaren laburpena artu nai dauanak or dauko Azkue, Aranzadi, Barandiaran, Caro Baroja, Satrustegi ta Iztueta oiñarri lez artu dituan liburu egokia. Sakonago jo nai dauanak, gero izango dau era.

EUSKALERRIKO IPUIÑAK

Ona emen irakurteko gozo ta euskera errezecko liburu polit bat.

EUSKERAZALEAK taldearen arduraz irarkolaratua, eta Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren laguntzaz argitaratua.

Ez da liburu aundia: 110 orrialde guztiz. Bahia argi irarria eta atsegiñez irakurtekoa.

120 ipuin inguru dira eta azalean eta barruan irudi egokiz apainduta datoz. Nicolas dogu margolaria.

Idazleak berak diñosku ipuiñak nortzukandik artuak diran: Azkue, Barandiaran, Estomba..., Iturri garbiak eta onak benetan.

Lenengo atala ei da liburu au eta bigarrena be ateetan ei dago, era danean argitara urteteko.

Liburu eder onetan aurkibidearen bearkizuna agiri dala uste dot.

Zorionak Beobide'tar Jose Luis'eri ta bere lankideal.

OLAZAR'tar Martin'ek



IKASTOLARA ALA ESKOLARA

Gazteitz'en bizi naiz, baña tolosarra naiz, eta abenduko il onen asieran izan naiz Tolosa'n, nere errian. Ta an esan didaten gertakizun pitxi bat nai dizutet kontatu «ZER» aldizkariaren irakurleei.

* * *

Bi gizonak kontatutako gertakizuna da: A lustiza adiskideak, aurrena, Tolosa'ko kasinuan eta Xegundo praktikanteak gero Udaletxeko enparantzan.

Gipuzkoa'ko erri eta uri guztiak bezela, Tolosa ere mendi tartean sarturik dago. Mendi ederrak, mendi garaiak: Ernio, Uzturre, Aralar... Oiek baiño apaltzagoa, koxkorra, baña menditxo polita, Izaskun dago uriaren albo-alboan. Zoragarria da menditxo orren gainetik, Kantauri itxasotikan Aralarko Mailloeta-raino, ikuspegia.

* * *

Baña izaditiko edertasun oiek baiño ospe aundiagoa eman diote menditxo oni bere gainean dagoan baselizak eta baseliz orren barrengo Ama Birjiñaren irudi zaarrak: Izaskun'go Andra Mari. Tolosar guztientzat, «Izaskun'go Amatxo», Ama Birjin ori bait da Tolosa'ren eta Tolosa-inguru guztiaren Zaindaria.

Baselizaren inguruan baserri batzuak dagoz, an emen banatuak. Baserri zuriak, len gaur baiño aberatsagoak izanak.

Baserri oietako baten izena «MONPOIDO» da, izen oieza (rarua). Ba-dira Tolosa'ren inguruan, eta baita Donosti'ren inguruan ere orrelako izenak, frantziar-kutsua dutenak.

Lekuona'tar Imano(jakintsuak dionez, XII mendean Gaskuñako nekazariak onera ekarriak, orduarte Gipuzkoa eta Bizkai artzai-lur ornen ziran ba, orduan gaskoiñek, Naparroa'ko Erregearen baimenarekin, nekazaritza ekarri ziguten arte.

Gaskoiñak, errioxatarrak bezela, odolez eta jatorriz, euskotarrak dira, naiz berak orain ortaz oroitzen ez. Gaskoiñ aiek gañera, zentzu onekojendeak ziran zalan-tzarik gabe. Ala da beintzat MONPOIDO'ko etxejoauna gaur.

* * *

Etxeko jaun ori, Zubelzu'tar Kaxildo duzu, eta oso kezkatu-rik omen dabil egun auetan bere semearen eziketari pentsatzen. Seme orrek ikasten duan Euskera da

Kaxildo Zubelzu'tarra orrela kezkatzen duan gauza. Kaxildo, jakiña, giputxa da, Ibarre'ko semea, eta gipuzkera mintzatzen dute berak eta bere jendeek etxean.

Umeak ordea «el batua» ikasten du ikastolan; eta aitak ez dio bere umeari ulertzen.

Umeak gañera Euskeraz ez dakila esaten dio aitari. To! Euskeraz itzagiten ez dakila esan ume muturtzikin batek, Ibarre'n jalo eta Izaskun'en Monpoido'ko etxejoaun dan giputx baserri-terri!

* * *

Asarreturik omen dabil alta, eta au esaten omen dio entzun naidion guztiari: «Nik euskera bat, eta nere semeak bestea? Nik ez dial etxean orrelako nasketarik nai! Ikastolatik atera, eta «Eskuela Nazional» ean sartuko dial nere ume mukizu ori; eta kitto!».

Parregarria? Bai, irakurle, negargarria ez ba'litz. Eta..., Tolosa'ko Ibarre'ko giputx batek bere semeari «el batua» ulertzen ez ba'dio, nola ulertuko dio bere semea-ri «el batua» ori bera Orozko'ko Ibarra'ko bizkaitar batek?

BERTSOETAN

AUTS ZARA

(Goiria)

Eliza Amak gaur kristau guztioi
bigun-maitero diñosku:
«Autsa zara ta auts biurtuko»
egi aundi au gogaldu.

Auts zara ta auts biurtuko
egi garratz-ezuskorra;
gizonarentzat dei zerutarra,
baita be zigor gogorra.

Lokatz-tartean gozokeritan
lotuta dozu biotza?
Ez iñoiz aztu gau ta egunez
urbil data eriotza.

Zeure edertasun-aunditasunaz
biotza iatzu dollortu?
Lizunkerizko bizitzarekin
Jainkoarentzat gogortu?

Lur-pozkariak salduta zaude?
Jainkoarekin aztuta?

Zeure iakintza-aurrerapide,
ondasunekin puztuta?

Gizon ospetsu eta eta itsu orrek
zeure biotza goratu;
Eliza Amaren egi garratz au
ixillean gogoratu.

Biotz-barnean gogoratu ba
ezarri iatzun ikurra:
munduko gauzak uskeri dira
zure bizitza laburra.

Ezetsi gogoz galkor iatzuna
ta naikeri ustelkorrak;
billatu beti bake onean
maitetasun illezkorrek.

Biotz-barnean eta ixillean
egi aundi au ez aztu:
«Autsa zarala ta auts izatera
bear dozula biurtu».

Bilbo - 1931

BILDOTS ZURIAK eta BALTZA

*Gaur, igande arratsaldean,
landara urten naz, pasean.*

*Negua da,
baiña zeru garbian
eguzki ederra
argi-argitan dago,
!ño!z baiño ederrago.*

*Mendi gaillurretan edurra,
sutondoan amamak egurra,
eta ardi-ama zuriak,
ume-egin barriak,
bedardian, landan,
egun osoan
bedarra jaten...
Ardiak noiz asetzen?*

*Ara, or, bildotsak,
ardi-emen inguruan, olgetan,
saltoka ta trisketan,
itzulipurdika, ariñeketan...*

*Jolas ondoren ba-doaz,
amaren errapera
esne gozo-epela edatera,
buztan-ikaran, dardaran
pozaren pozez,
atsegiñez.*

*Bildots guztiak dira zuri-zuriak,
ule kuzkur, malizi-bako begiak...
Bahia bat, ballza da, baltz-baltza.*

Eta zer?

*Bildots zuriak,
orregatik,
baltzaren ondotik
iges?*

Eta zer?

*Ardikume zuriak, baltzarekin
ez nai jolas-egin?*

Bai, zera!!!

*Olago txarkeriak
gizonen artean bakarrik
gertatzen dira!!!*

GOIKOETXEA'tar Iñakt

URTE BARRIKOA

Urte barri on! —diraustazu— irriparrez
ta, nik, be, eskua luzatuz, bardin dirautzut;
ta, urteak lekarken ernaldi bizikorrez,
aldi obeago bat, ikusi nai genduke zut.

Bizi-itxaropenak iñoiz galdu batik,
gizarte ariak ondu bediz, maitasunez,
—zentzuzko ekintza, benetako gaitasunez—
euskal alorrak betikoz osasundurik.

Ez bedi izan, beste, galdutako urte bat,
baizik euskerea sendatu, gainduko dogun
urte-aldi oparo bat, gure erriarentzat.

Arduraz erein ta, biotzez indarturikoa,
—galburu betea bezin eder ta, ogidun-
guztion alegin ta, gogoz, ondurikoa.

MUNIAITEGI'tar Sabin.

GERO ARTE, ANTON

Eriotzak, bat batean, eroan dausku, berrogeta ama-bost urte zitula, On Anton Enbeita Ormaetxe, abade goragarria.

Uste dot olako gizon ospetsu baten gomutapena gure aldizkari ZER'eko orrietan betirako ipintea, bidezko dala.

Bilbo'n jaioa, Santiago'ko eliz nagusian bateatua, Mujika ta Orozko'koa jatorriz.

Gazte gazterik lanean asi zan «SEGUROS BILBAO»-ko lantegian.

Kontu-iakintza ta makiñaz idatziten oso trebea. Eguneroko illuntzi ta jai-egun guztietan S. Anton parroko katoliku ekintzako gatzetxuakaz lan ederra egiña da bera.

Azkenez, emeretzi urte zituala, abadetzarako ikasketak egitera joan zan, bere jakintza ta indar guztiak Jaunari eskeintzeko asmo biziagaz.

* * *

Abadetuta bereala Barrika ta Armintza'ko erretore izentatua izan zan.

Armintza'ko elizatxo ederto ornitu ta aunditu eban.

Armintza'n abade-etxe barri bat eta nagusi ta gazteen-tzat jolas ta batzarretarako bebarru ederrak egin bere.

Eliz inguruan zelai eder bat erosi eban orain erriaren zelai edo parke dana.

* * *

Eliza maite maite eban eta ikusirik an Txilloe Pazifiko itxasoan dagoan ugartean abade gutxi egozala, beste abade bigaz, bost urterako, Mixiolari lez joan zan.

An lan aundia egiñik eta angoak zenbat maite eben ikusirik, ez bost urte, zortzi egin zituan, ain zuzen be, langille uts-utsa ta asperbagea zalarik.

* * *

Ondoren Iparragirrek diñoana... «Baiña biotzak diño zoaz euskalerrira» biotzean entzunik, biurtu zan

Bilbo'ra, ez atsedenean ta patxadan emen biziteko, baiña bai emen be lanari jarraitzeko.

Elizako etxe edo Kuriako lan-gelara'ko erretore.

Or ibili da ara ta ona, gelditu бага goizean Kuriako lan gelan eta arratsaldean bere parrokan.

Parroki barria aunditu ta edertu eban eta bardin gela barriak erosi, katekesi, eliz batzar eta abarretarako.

Oso maitatua Kurian bere egin bearragaitik. Bizkaiko abade guztiak arazoetan beragana jotzen eben eta danentzat txera ederra ta serbitzu arin ta askarra eukazan.

Danak arrituta baita poz pozik egozan beragaz.

Ao batez ori diño guztiak.

Parrokan, bardin, danak maite eben, orregaitik bera iltean, danak tamaldurik agertuten dira.

* * *

Bere albide ta zeintasan urtenenak onek izan dira: Oriomen argi ta ezin aundiagoa, egizko apaltasuna, esaera sakonentzako etorri ugaria, Euskalerraren maitasun berebizikoa, ezer egin barik egon eziña.

Beti lanean eta atsedean aldietan, irakurle ezin asetua.

Euskaldun lez, arro arro egoan bere senitartean ainbat euskal bertsolari gorengoak eukazala ta (ain zuzen bere Enbeita'tar bertsolari zerrenda luzearen senidea zar. Zenlateraiño maite genduan argi agertu lere alde San Anton'en egin zan illetan.

Eunetik gora abade, Gotzaiña buru zala. Elizan jendezta ikaragarria, batez bere, gatzetatik esagutu dogunok eta bere Mixiolari lagunak gure begietatik malko iturri ezin agortua jarioaz.

GERO ARTE ANTON! EGUN AUNDIRA ARTE!

BAKARDADEAN ITZI GAITUZU
ANTON EMENGO LAGUNAK
GOI-ALDE ORTIK GURI LAGUNDU
BETEZ GU ITXAROPENAK
BIZKAIKO ELIZA OTOI TA OTOI
GURE GOIKO JAINKOARI
BIDAL ZERUTIK GURE ERRIRA
ABADE ONAK UGARI

EBANJELIOA

Goiria

Ebanjelioa ta kristau-bizitza batera dagoz. Ezin banandu leitekez.

Askok esan oi dabe: erlejiñoa bai, baiña ebanjelioa ez. Alde baten itzi bear da gaur ebanjelioa. Ez dogu bere bearrik, bere premiñarik.

Zorakeri aundia deritxat niri ebanjelioa aide baten itzi nai izatea. Begirune aundia izan dautso beti gizadiak, munduak ebanjelioari. Kristauak bakarrik ez, sinisterik ez dabenak be bai.

Diderot'ek, Rousseau'k, Victor Hugo'k eta beste askok goraldtu eben ebanjelioa.

Ona euretariko batzuen iritxia.

«Ebanjelioaren santutasunak itz dagio nire biotzari. Begira jakitunen liburuak. Bai dirala txikiak aren ondoan» (Rousseau).

«Orrialderik-orrialde irakurten dabe gizadiak ebanjelioa. Bere itz bat bakarrik irakurten ba'dozue be, anei irakurten dozuez» (Lamartine).

«Idazti au ez dauken erriak bere eske dabilta. Illunpetan izan diran ogei gizaldik ikasi daroe» (Victor Hugo).

Gogoan dot: udabarriko egunsentian esnatzeak dagian sentipena, alakoan egian nire gogoan 18 urte nebazanean egunero ebanjelioa irakurtzeak.

Zeruko doiñuak entzuten lez esnatzen nintzan eta zoratzen ninduan goimaitasunezko aize gozoa igoten zan mizteriozko orialdeetatik-zear» (Augusto Nikolas).

«Ederra ta sakona da dana ebanjelioan. Dauan jakintzak jakituna ta ez-jakiña illuratzan ditu batera; bardin Bossuet eta baserriko umea. Trebetasunik gabe idatzitako edestia dago beragan, obeto esan, Jainkozko trebetasuna. Ez da ikusten, ez da agiri; leiarraren antzekoa da; begiak ez dabe zertzen, ez dabe bereizkatzen; ain argia da bere trebetasuna. Olerki, esaera ta irudi bereziak ditu; Homeroren eta Birjili'ren irudiak ez jakoz urreratzen naizta samurrak eta ukigariak izan. Bere itzaldiak arritu dagie;

bere esaera errezak oldozkaia goigoian jarri ta egia argitu. Dituan sinisteak, aginduak, aolkuak eta adibideak legedi oso-osoau dauke. Ebanjelioaren itz bakoitza bizitz-azia dira. Ezarri bedi ebanjelioa ta lurra zorionzeru biurtuko da ta bere-gain dituan gaitzik asko kenduko dautsazuez munduari» (Gibier).

«Liburutegi guztiak baiño geiago balio dauan liburu bat da; umeak, gizon elduak eta zaarrak eskuratu bear leukez bere orrialdeak.

Mosuz bete ta malkoz bustitzeko duin dira bere izkiak. 40 gizaldi zai egon ostian agertu zan lurtean liburu au. 19 gizaldietako kritika-irizteak lerro bat ezin kendu al'izan dautso. Liburu onek gizonen artean bizi dan Jaikoaren itza dauko beragan.

Liburu au Ebanjelioa da. Irakurri egizue ta beste iñon baiño obeto ikusiko dozue beragan, Jainkoaren ontasuna. Ontasun au orrialde ta irudi guztietan agiri da. Bere esaera ta deadar guztietan ikusten eta entzuten da ontasun au. Argia da dana ertz bateatik bestera liburu ontan guztia maitasuna baita. Jaungoikoak Gizon egitean emon eban Bera zan guztia, baiña oraindik urriñoago joan zan» (Bieber).

«Libururik ederrena da. Aspertu bariak irakurten dot. Egunero poz aundiagoaz. Iñon ezin aurkitu daiteke pentsamentu ta esaera ederragorik. Zeruko gudarosteak lez igaro oi dira gure aurretik. Ebanjelioa gure adimenaren jabe egin danean, oso-osoan beraganatzen dau gure biotza. Beste ezerk baiño obeto azaltzen ditu Ebanjelioak munduaren oiturak eta edestia» (Napoleon).

Ebanjelioa kantu ta bat da. Kantu eder, sakon eta mamitsua. Filosofi sakona dau ebanjelioak. Lege ederrak, jakintsuak dauko ebanjelioak. Bere itz bakoitza bizitz-azia da. Ebanje-

lioak salbatu eban antziñoako mundua ta gaurkoa be ebanjelioak eta ebanjelioak bakarrik salbatuko dau. Paganismoak itota dauko gaurko mundua. Gaurko geienak dabezan pentsamentuak, itzak, asmoak eta egiteak gogoratu. Ezbaia ta ukatzea da dana.

Jaungoikoa bai dala, betiko bizitza bai dala, arima ezilkorra dala, urkomaitasunLa, besteren eskubideak, gurasoen eskubideak... dana ukatu egiten da gaur... il-zorian dago gizartea. Eskura dator kon edozer irakurten dau gaur gizonak, ebanjelioa osteria baztertuta dago, ez da irakurten... ortik sortzen dira ainbat eta ainbat ukatze... ortik dana zapaltzea.

Begira gizartea... jan-edan-etxeak... jolas-etxeak... sukaldeak... ikastetxeak... ikastolak... begira oiturak... zer irakurten dan... zelako izketaldiak entzuten diran... zer idazten dan... zer irratian... telebisian... eguneroetan... aldizkarietan...

Gure errian be... gure Aberrian be... gure Euzkadi'n be... begira gure gaztedia... zergaitik? Nun da onen iturria? Nun onen sorrera? Ebanjelioa baztertu dalako. Kristo'ren irakatsiak onartu ta bete bearrean Mao'ren, Lenin'en eta beste antzeko sasimaisuen irakatsiak ontzat artu dira aspaldion gure errian. Eta irakatsiok ontzat artze onek euzkotarrak batez be gure gaztedia elizetatik uxatu egin dau. Ebanjelioa ez eta kristau-irakatsian aurkako liburuak ikusten eta irakurten dira gure txokoetan. Oinkada aundia egin dau gure erriak kristautasun-bidean baiña atzeruntz.

Beraz gure erria salbatu gura ba'dogu, guztiz eta betiko ondazterik nai ezpa'dogu betor, betor barrero ebanjelioa gure errira, gure sukaldeetara. Ebanjelio-beroak bakarrik sendatuko dau gure erriaren gaizo-aldia. Ebanjelioak bakarrik ekarriko dau barrero gure errira zuzentasuna, alkartasuna, anaitasuna ta zoriona ta bakea.

Gizonen-tarteko itunbenak eta alkargoak utsak izango dira ebanjelioaren kerizpean egiten ez ba'dira.

"SANTIÑA" EUSKALDUNA

JAKITUN ETA APAL

Aedo'lar Maria Josefa, Ermu'koa izatez, 1766 urtean jaio zan. Neskatilla onbidetsu au, amalau urtekoa zala, bere amagaz Koruña'ra joan zan.

Emen eskolatu ta ikasketak egin ondoren, ogei ta bi urte bete ziluanean, Santiago'ko Merzede-lekaimeen etxera sartu zan, aizta lez. Bere apaltasunak ez eulson itzi lekaimeen artean ama-maillakoa izaterik.

ZENTZUNEN GOITIK

Idi aretako kondaira-edestiak diñoenez, ain onbide-tsua te deuna zanez, bere aragia astindu ta mindu arren, bere oiturazko poza iñoz ez eban galdu.

1974 garren urtean, Pedro Nolasko deunaren zortziuraren barruan, ez eban arlu beste janaririk Eukaristia baiño.

1801 'ko iraillaren 27'an, Ama Birjiñeak Lekaime-Ama mezedetakoaren oiala ipiñi eutson ordura arte aizta zanari. Bitartean lau ordutan egon zan zentzunez kanpo, lekaimeen abestiak eta beste zarata aundiago batzuk entzun batik. Bere burua estaldu eulson oial zuria koruko lekaime nagusiaren jarlekuan agertu zan.

* * *

ARRIGARRI

Jazokun au Santiago'n, Galizia guztian, Asturias eta Gaztela Zar danean zabaldu zan eta biotz-ikara aundia sortu eban.

Baiña biozkadea ta arritasuna aundiagoak izan ziran, Maria Josepa'ri jazo jakozan beste jazokizun batzun aurrean.

* * *

IZKUNTZEN DOIA

Aedo'tar Maria Josepa'k, latin-ikuntza ikasi barik, erraz ulertuten eban eta berba bakoitxak zer esan gura eban ondo be ondo ekian.

Eleiz-oloitzak buruz jakiten zituan eta iñoz ikasi bako salmoak berak, abesburu zala, aslen zituan.

* * *

GAISO-ALDIAN

Gaisotu egin zan lekaime ezagutu au eta ogetak ille-beteetan elbarrituta egon bear izan eban, ezerjan ez edan barik, janari bakarra Eukaristia ebal.

Lagundi-Buru Nagusiak gauza arrigarri oneik jakin zituanean, egi osoa jakiteko ta gaia sakonagotik aztertze-ko Migel Muzkiz Santiago'ko Golzainari eskubideak emon eutsozan.

* * *

AZTERPENAK

Golzainak ikertu eban lekaimea eta arazo miragarria aztertu eban eta aizta zana ama-maillara jazoteko eskatu eulson lagundiari.

Asmo fa onu on onartu eben lagunak eta elbarritua-ren buruan oial baltza jarri eben eta gaisoa bat-batean osatu zan.

Jagi ogetik eta besteen artean aurkeztu zan, golzain-eraztunari mun egin eutson eta bere aitzak banan-banan besarkatu eta begira egozan guztiak agurtu zituan.

* * *

BIZITZA ARRIGARRIA

Lekaime onen bizitzea benetan arrigarria izan zan: Miraririk mirari igaroten zan.

1804'ko epaillaren 6'an gaisotu egin zan barriro eta oraingoan il-zorian egoteraiño. Illearen 10'ean eleiza-koak artu zituan eta itsurik, gor-mutu ta gorpu-antzera geratu zan.

Egoera itun onetan egoala, San Marin'go Gabriel gogo-zuzendariak, esanekotasunpean jagiteko agindu eutson eta ortozik ibilli ta ibilli asi zan agindu barria artu arte.

Negar-maloak isuri eta gero egin eban esana eta guz-liz osasuntsu bizi izan zan.

* * *

NAGUSI-ORDE

Guztiak arriturik geratu ziran eta A lkarte aretako Nagusi-orde aukeratu eben.

Eginbear onetan, bizitza eredugarri fa nekez beteri-koa eroanez, bizi izan zan eta 1805'eko garagarrillaren 11 'n, azken-arnasa emon eban, bere gogoa Jaunaren besoetan itzita eta 39 urte zituala, 17 urtetan lekaime izan ondoren.

* * *

ERIoTZ-OSTEA

Bere eriotzearen barria zabaldu zanean, Goi-Gotzainak eta kanonikuak erritarrakaz batera «Santiña das Madres» en gorpua ikustera eleizako ate-ondora urreratu ziran.

LETONA'k

I RAKAS LEA ETA KURUBIOA

Giovanni Mosca

Irakasle batek ikastetxetan irakasten ez diran iakintza eta ikaspideak bear izaten dauz batzuetan.

Ogei urtegaz, irakasle ordezeko izentapen agiri bat sakelean nebalarik eta, biotza, estu, taupaka, zuzendu nintzan izendatua netorren ikastetxera, eta, zuzendariak berba egiteko gogoia agertu neban.

Nor zaitugu? —itaundu eustan idazkarimeak—. Ordu-garai ontan, zuzendariak, irakasleren bat edo izan ezik, ez dau inor artzen.

Irakasle barria nozu —erantzun neuntsan— agiria erakutsiz.

Marmarka sartu zan idazkarimea zuzendariaren idazgelan. Au atara zan, begiratu bat egin eustan ta, kopetea zimurtu eban.

Zer barraban gertatzen yako Ezikuntzako Sallari? —ots egin eban—. Orain mutiko bat bialtzen dauste, nik goitik-beerako gizon egin gogor bat bear dodanean, berrogei astakirten orreik mentzeko. Birrinduko dabe! Beriala konturatu zan on ez zala niri adorea emoteko erarik onena eta, irriparrez, sorbal-dan laztankiro jo nindun, eta, abots legun gozoz, esan eustan: Bete al dozuz ogei urte? Amesei urteko itxurea dozu. Ziur zagoz DANTE ALIGHIERI eskolarako izendatua izan zarala?

Agiria emen daukazu —esan neban— eskura emonik neure izentapen agerpena.

Iainkoak zaindu zagizala —esan eustan zuzendariak—. Oraindik inor ez da duin izan mutiko biurri auek menara ekarteko. Berrogei deabrukume, armatuak eta eratuak, Guerreschi deiturazko baten buruzagitzapean. Azkenengo maixua, irakaslea, entzute aundiko agurea bera, beren zorrotzasunagaitik, emendik, aldatze eskabidea egin ondoren, atzo aide egin eban, negar-malkoak ixuriz.

Ori esanaz gero, aide banatara ikasgelak eukazan arteka batetik eroan nindun. «Auxe da» —esan eban zuzendariak—, gelditurik 5-C ikasgelaren atean; ez zan makala gela barruan zebillen astrapaladea: oivak, karraxiak, berunezko peloten takadea olbel-tzean, abestiak, eta narrasturiko maien krakadak.

«Uste dot barrikadak jartzen ari dirala» —esan eban zuzendariak.

Besoan ikutu bat egin eustan eta bakarrik itxi nindun, an, 5-C ikasgelaren ate ondoan. Urte bete osoan, lanbide onen zai egon ezipanintzan eta, nire sendiak eta, nik, izan ezipagendun ainbesteko diru bearrik, laster aide egingo nuan bai andik. Ordea, edegi nuan atea eta sartu nintzan.

Bat-batean sortu zan ixiltasuna. Atea itxi eta urreratu nintzan neure maira. Berrogei mutiko, begira-begira neukazan meatxuz.

Kanpoko aldetik aizeak astintzen ebazan zugaitzen abarrak leioko leiarren kontra.

Ukubillak estutuz, txitik ez esateko adorea artu eziñik negon. Berba bat esatea naiko izango zan, une atako geltasuna apurtzeko.

Beraz, ona zan apur bat itxoitea. Gertaerak ez ziran zertan aurreratu. Mutillak niri begira tenean irraitu eban, betoskoz, eta, nik be, begirik ez neuntsen kentzen, ezitzalle bati dagokion lez. Laster konturatu nintzan buru egiten ebana Guerreschi zala. Jarrita zegon lenengo errenkadan. Mutiko txiker bat zan, kaskamoztuzko uleaz; agin bi falta yakozan eta, aren begiratua illuna zan. Urresagar bat erabillan aldatuz, esku batetik bestera, eta, aurpegira begiratzen eustan betoskoz, adi. Eldu zan garaia.

Karraxi aundi bat egiñaz, eskumako eskuan urresagarra gogor eutsita zeukalarik, besoa bat-batean atzeratu eta, jaurti eustan indar guztiaz. Burua apur bat aldeberatu neban eta urresagarra nire atzeko aldeko orman brintzatu zan. Bearbada a izango zan Guerreschi'k lenengo biderrez uts egindako arrikadea. Eta, nik, arrikada on ez artzeko burua apur bat aldeberatu, besterik ezer ez neban egin.

Su eta, gar, irakitan, Guerreschi zutundu zan eta, niganantza zuzendu eban beren goma gorridun tiragaillua, txistutan bustiriko paperaz egindako pelota antzekoz gertua. Ia, erdi batera, beste 39 mutikoak be, zutundu ziran eta, niganatu ebezen euren goma aruntezko tiragailluak; gorriak ez, ba, margo on bakarrik buruzagai yagokona da.

Oraindik leioko leiarretan zugaitzen abarrotsa nabaitzen zan. Burrunbada ost bat zala iruditu yatan eta, alaxe zan, gero nabarmenago nabaitzen zalarik alango ixilgune atezuan. Kurubio bat sartu zan gelan.

Guerreschi'k ez ebazan begiak nigandik aldetzen, baiña, tarteka, begirada bat edo beste zuzentzen eustan kurubioari. Nabarikoa zan mutikoaren barruan sortu zan zer-egingoizko burruka: Zein izango zan aukeratua?: Irakaslea ala mamorroa?

Ondo baiño obeto nekian bai, zein atsegingarri izaten yaken mutillei olako mamorroakaz jostatzea; mamorroa ia, urtena zegon eskolatik eta, ni be, ezin nintzan geiago ezereen ardura barik, geldirik egon, ezer ezbalitz lez, kurubioaren aurkezpenaz.

Bat-batean, 'esan neban;

Guerreschi (mutikoa izu-ikaratu zan, arrituta nik nundik edo zelan ete nekian bere izena): uste dozu zure tiragaillu orregaz kurubio on ilteko trebea izango zarala?

Zergaitik ez? —erantzun eban.

Kuxu-muxuzko marmara bat zabaltzen asi zan ikasgelako areto barruz. Tiratzailleak, nigana zuzen-

durik egozanak, beren atezua galdu eben, eta, begirada danak Guerreschi'gana zuzendu ziran, eta onek bere maia itxi eta kurubioari tiratu eutsen. Baiña, paperezko bolatxoa argontzi baten kontra estekatu zan eta, kurubioak alaikiro, egazean jarraitu eban.

—Emoidazu tiragaillu ori —esan neban.

Paper zatitxo bat agoan xeaturik, bolatxo bat egin neban eta, kurubioari zuzendu neutson Guerreschi'ren tiragaillua.

Tirokada artan zegon nire salbapena edota nire entzutea.

Gogoratu egizu —esan neutson neure buruari—, eskolan egoten ziñanean, beste iñork ez zeukala zuk aiñako trebetasunik kurubioak ilteko. Tiratu neutson. Une artantxe bertan, amaitu zan durundo-otsa eta, nire oñetara ilda jausi zan kurubioa.

«Guerreschi'ren tiragaillua daukat» —esan neban, tiragallua, eskuan iasorik, goi. «Orain besteak ekarri egidazuez.

Entzun nebazan kuxu-muxu batzuk, baiña, asarezkoak baffle) geiago mireskunderakoak ziran; arri-turik itxi nebazan eta, banan-banan, buru makur, nire maira urbidu ziran eta an geratu ziran berrogei tiragailluak.

Garrantzirik emon barik, ezer gertatu ezbalitz lez, esan neban: «Asi gaitezen ba, aditzakaz». Guerreschi, olbeltzera! ».

Jaurti neutson gredea eta asi nintzan astiro esaten: «Ni naiz, zu zara, bera da...»

MUNIATEGI'tar Sabin'ek euskeratua.

(Gaztelera-zko «Selecciones» aldizkaritik jasoa)

GOSEAREN AURKAKO EKIÑALDIA

GOSEA

ZER DAN

Erri-maillako erakunde bat. Gosearen, gaisoaren, alzerakuntzaren, zapalkuntzaren aurka jokatu dauan erakunde. Guztion ardurea sorlu nai dau eta Irugarren Munduko arazoai begira guzliok jarri. Mundu orretako lurralde guztien aurrerakuntzarako diru-laguntza emoten dau.

JAIOTZA TA ERAGINTZA

1955 'garren urtean, UMOFC'k gosearen aurkako deadar aundi bat egin eban.

1960 garrenean, FAO'k Gosearen aurkako ekiñaldia indartu eban eta 92 laterrik onarlu.

Gure artean «Esku Alkartuak» izena eukan Katoliku-taldeak artu eban zeregin ori eta beronek daroa aurre-lan au, agintarien ardurapetik kanpoan.

BENETAKO LAGUNTZA DA?

Urte bakoitzeko ekiñaldian elburu batzuk jarten dira eta ekiñaldiaren azkenean elburu orreik beleteko bear dan tokira eltzen dira laguntzak.

EMEN BA-DAGO GOSERIK?

Ez gagoz lurralde atzeratuen edo Irugarren Munduaren barruan, bai-



ña ba-dagoz gure anean be talde la norki beartsuak, txiroak. Emengo gosearen arazoari urtenbidea emoteko, abarastasunak egokiro banatzeko, geure anean alkar laguntzeko erakundeak naikoa daukaguz. Orreik egin bear dabe emengo lana.

BESTE BEARKIZUN BATZUK?

Ba-dira gure Errian urtenbide gaxta dauken beste bearkizun batzuk eta orretarako be geure laguntza emon bear izaten dogu.

Baiña atxaki ori dalata-ta, ezin geinke munduko gose, atzerakunlza ta jakinlzarik ezaren aurrean gure laguntza ukatu.

Banaka la bakoitzak ez daukagu almen aundirik, baiña guztiok alkar-turik lan ederra egin geinke.

Ez dagigun aiztu Irakasle Aundiak esana:

«GOSE NINTZAN ETA ZUEK JATEN EMON ZEUNSTEN».

BENETAKO URREA

AITA

Munduan beste askok lez, aita batek iru seme eukazan.

Eta irurok ondo azten alegin guztiak egin ei ebazan. Dana al-perrik, baiña! Seme orreik lanean ez eben ikasten..., ez etsipenik ar-zen...

Alako baten, aita orí gaisotu egin zan eta joiala bere buruari igarri eutson eta bere semeai bere ondora deitu, ta esan ei eutsen:

Urrea, lanaren gara... Orra or, etxe aurreko soloa. Leen garbi ta apaindua, eta dana sasiz betea orain... Or dozuez gure ondasu-nak... Ba-dozue or naiko urre!

Eta zelan azaldu zendun, ai-ta— itanduten deutsoe semeak.

Zelan...? Laiaz eta atxurraz jo oi neban solo guztia..., eta garia erein gero. Eta urteetan eta urtee-tan orrela. Eta udaldi-ro bako-txean urre-mordoska ateraten ne-ban ortik. Ba-dozue oindiño, gura aiña.

—Eta zer aldetan dago urre orí?

Baiña, aita ori, geixoaren inda-rraz, itz barik geratu bai, eta be-

realaxe il zan, beste garbí-tasuník emon barik.

SEMEAK

Eta gero esan eben semeak euren kautan:

Ez dakigu zein tokitan da-goan urre ori... Bahia, solo orre-tan dagoela, bai. Zopí-zartu ta atxurtu dagí-gun lur guztia, eta agertuko da urrea, bai ziur!

Eta or así ziran lanean, bata bestearen leñan. laster zuritu eben solo guztia.

Urrerik ageri ez, baiña! Aurre-rapen barik, eta guztiz lur jota ge-ratu ei zí-ran mutillak.

GIZON ZAR BAT

Gizon zar bat agertu zan one-tan, ta itandu eutsoen:

zertan zabí-ze, mutillok, orren estu ta larri?

Eta mutillak euren esku arteko arlo ori azaldu eutsoen gizonari.

Ez dago txarto-besteak or-duan—, ez etsi, mutillok; ez deu-tsue aitak buruzpide txarra emon.

—Bardín uste dogu geuk bere.

—Zuritu dozue lurra, eta laník okerrena eginda dago. Azaroa do-zue orain, eta garia erein.

Carla erein...? Zer diñozu, ai-tita?

Garia erein, bai... Gero, negu-ko euriak eta udabarriko beroak azalduerazoko dautzue aítak esandako urre ori.

URREA

Eta olan egin eben gazte orreik.

Bederatzi íllabete buruen, gari-solo ederra egin ei zan... Galburu gorriak eguzkitan diz-diz..., urre-solo bat ei zirudian.

Eta eurei begira iru anal orreik, erdi zoratuta.

Eta an azaldu ei jaken, barriz be, lenengo gizon a, eta orrela esan ei eutsen:

Ona, gari-solo ederra, urrepi-lloaren pare! Ez aaztu gero, aita-ren esana: Urrea, lanaren gara.

Eta ordutik-ona ikasi ei eben iru anal nagí ta alper arrik euren solotik, aítak esandako urre mor-doska urtero ateraten.

SIDERURJIA

EUSKALEERIAN

1974an sortu zan krisisak, beerantzkadarik aundienetarikoa Euskale-errian, siderurjia nailletan izan eban. Alaere 1981. Urterako sektore onek berbiurtze edo rekonberziño gogor baten beartasun zigor bat bear dau.

Gure errian sektore onek industria-egiñetatik lauren bat daroa, eta industria guztiaren motor edo eragille izatek, sektore gaisoustel bat izatera joan jaku.

Guztion itxaropen eta gogoan dago barrizteak bide garbiago bat artu daikela, Euskalerriko indar nagusia izatea itziz, ke ta zikinkiri gitxiagoz industria garbiago bat izan daiten.

Arriskua askorentzat Euskalerrria txirotea izango Iitza-teke, haiña industria baten irabazia ez dago bere etorrian, naiz aundia naiz txikia izan, industria orrek «materia prima» (len-gala) deritxoena aldatzeko almen on bat ba'dau baiño.

Eta orregaitik berbiurtze onek teknologia barri baten bi-detik abiatu bear dau, lengo erak aide batera itxirik, azken-balioa eta ondorenaren kalitatea aundiagoan biur-tzea Iortuz.

Siderurjiaren barman atal bi bereiztu bear ditugu: aide batetik, siderurjia osotia, Bizkaiko Goi-Labak (AHV), eta ez dana, onen barruan alaere bereizturik danetariko galtzairuak eta galtzairu bereziak.

Azken oneik dira Euskalerrrian garrantzirik andiena dabenak.

Siderurjia osotiak era atzeratuak ditu, berantzkada gogorrean aurkiturik, baiña ostera bestea gaurkotuta dago, tcknoloji barriago bat izanik, egin jakon inbersiñoari esker eta bere lantegiak bariztu diralako era on batez.

BGL (AHV)-k arazo aundi bat dauka ondoren-maillentan, galtzairua gitxi egiten dabelako eta ostera errabioaren ondorena azkozaz aundiagoa izanik, eta Ian amaituak ere bai.


Emen dago bere estutasuna, ekarpenaren indarraren nenpean egon bearrean, atzerrira bere lana bialtzeko, one-la, here egiñetako merketasuna galdurik. Baiña lantegi onen egoerak, ezindu egiten dau bere finantziaketa bere barmen naiz atzerrira begiraturaz. Orregaitik BGL-k aide batera itza bearko ditu bere Ian atzeratuak edo bapere egokiak, Ian barrienak eta onetarikoak bakarrrik egiten abiatuz, onela merkatu guztietan toki bat izan aal dagian.

Galtzairu berezien arloan, berebil-saillearen larri-uneak. euneko 30-ko eskaera daroa berton eta orduan galtzairu berezien langintzak merkatu barrien billa Joan bearra izan dau orain asten dagozan errietara, atzerrian, egiñaren ba-

lioa beeraturaz eta alaere kalitatea gitxiagotuz, nagusitu aal izateko.

Siderurjiazko langintza guztian argi dagon arazoa finantziaketa da inbersiño aundia egin dalako, asko salduko zala pentsaturik, eta ez da orrela izan; 1974-ko «Pian Siderurgico Español»ak 1980'rako 15 milloi Toneladako salketa iragartzen eban eta benetaz ez da elduko 8 milloira ere.

Baiña au ez da arazorik gogorrrena; beste aide batetik cskaria aundia danez derigorrezkoa da eskaria-emotea



(dirutza) alkartzea, gaur egun eskari aundi onen aurrean, egitearen kostua baiño merkeago saltzen dalako, ta orregaitik bearbearrezkoa da saltzeko diru-gaietan lege batzuk jartzea, sektore au ez daiten lurperatu.

Alare derrigorra da sektore guztiko lantegiak batzea berton gogortuz eta nor-geiagoa atzerrian bakarrrik izan daitela, Euskalerrrian gitxiago izanez.

Aide au txarto dago eta denporea aurrera doa ta ezer egiten ez ba'dogu gero ta txarrago egongo da.

URTE ILLUNAK

Berrogeitak urte onek, oso mingortsak izan dira gure EUZKADI ta batez ere euzkerarentzat.

Bai, alaxe da, berrogeitak urte onek, oker asko ekarri dausku gure euzkal oñarria sakabanaturik ipintzeko, baiña, Jaungoikuari eskerfak, oraindiokan bai doguz gure artean euzkal gizon jatorrak, ekaitz gogor oneri jarkirik aurkitzen diranak.

Ekaitz au, gogor ere gogorra da, egal guztietatik agertzen dira «abertzale»-usaiña aurretik ipiñiaz, ia zozo-onurakor (tontos utiles)'en batzuk jausten diran eta olan, indartuaz euren gaitz okerkeriak aurrera eroateko.

* * *

Larogeitabost urte dira EUZKO ALDERDI JELTZALEA sortu zala, ALDERDI'a sortu zan lenbizi, ABERTZALETASUNA ZABALDU ta ERRIARI ERAKUSTERO ABERTZALEAK IZATEN.

Guda-ostera arte, ALDERDI'ko batzarretan, ez zan itz asko egiten «politica» ta Ian gai izketak, ALDERDI'ak, ABERTZALETASUNA euki eban elburutzat, baiña, jakiñekoa zan nai ta nai ez, politikan ere jokatu bear zala, ortarako aurkitzen genduan jatorrizko gizonak, euren eskuetan egoan EUZKADI'ko zuzendaritza, al-

dunak aide batetik ta langille «EUZKADI» Sabiñ'dar izkuntza-aldun-eskubidekuak bestetik.

ALDERDI'an, danetarikoak egozan, txiro ta aberats, langille ta ibildari edo alperrak, lege-gizon ta ikasgabekoak, danetarikoak, ALDERDI'ko batzarretan ez zan entzuten Sota, aberats ta CAPITALISTA BURGUES keririk, ALDERDI'ak, ez bakarrik alderdikideari, erri osoari ere alegintzen zan euzkotar izatea zer zan, danan aurrean, tinko ta lerdan erakusten emon eban, EUZKADI «Z» dala EUZKOTARREN ABERRIA, gure izkuntza EUZKERA«E» zala, EUZKERA, Sabiñ'ek esan eban lez zala, ALDERDIKIDE guztiak, Sabiñ'en eredun egin bear zala, atzerriko izkuntzari begira egon barik, abar ta abar.

* * *

ALDERDI'an ereduz izaten ziran euskal gai guztiak, aurrerape-na arturik beste sasi euzkaldunen aurrian, ta, gaur, zer?

ALDERDI'ak, bizitasuna emon eutsan E. L. A.'ri, ALDERDI'ak, era guztiko taldeak sortu zituan, txirindulari, mendigoizale, emakume, gaztedi ta, ainbat kirol talde, danari euzkal abertzale usaiña azaltzen, abertzale zintzoak izan gaitezen, ortarako geunkan gure egunkari jator bat,

ren zaindari, «H» bako izkuntz ederra. Gaur, «EUZKADI» ren ordezkoa, «DEIA» dala diñoe.

* * *

Bai, ezkerreko «abertzaleak» Ondarroa'ko esaera dan lez, mamun mamun kausk egiten dabena dira, ta gu, edo gure burukide diranak, ez aldabe ikusten edo, null sartu bear gaitue?

Gai onek uste dot, ez daukala bide onik, samiña da abertzale jatorrentzat baiña atea geiegi zabaldu izanak diran lez, oso latza da gaurko jokera. Sustrai sakonak ondo landuta dagozan lez, emen gagoz ba arerioaren menpean, besoak lotua, JELTZALEOK, nola kendu geinke gure etxe daukagun samin negargarria?

* * *

Guda aurretik, ABERTZALE lez ezaguntzen giñan, gaur, NACIONALISTAS deitzen dauzkue, ABERTZALE'ak izan nai ba'dogu edo olan ezagutuak izan nai ba'dogu, ezker usaiñekoak izan bear gara, «SOCIALISTAS» o «COMUNISTAS», tarte ortan ibilli ezik, ez ei daukagu eskubiderik ABERTZALE'ak izateko, noiz arte egon bearko gara egoera ontan?

ERREMENTARIEN SOIÑEKOAK

Eibar'en jaio ta Markiña'n ildako Juan Antonio Mogel eta Urkiza idazleak, Euzkadiko burdin-ola bateko oiturak zeat idatzi ebazan, bere bizkaierazko eta Durango'n argitaratuko Peru Abarka idazti jakintsuan.

«Kapela igartu ta erdikin bat buruban, zapi kedar-tu bat bekoki erdiraiño izerdia artu ta subaren berotasuna arinduteko. Ola-atorra, arkondara utsa idu-nean lotuba; ezta zer eskatu jakerik, ez kaltzerdi, ez abarka, ezta prakarik be. Oera etzuteko ta jagiteko eztaukie nekerik zer-artu.»

* * *

Beste XVIII gizaldiko idazle batek olaigozen oiturak zeintzuk eta zelangoak izaten ziran, diñosku:



«Ikusi eztabenak arrituko neukez, baita bildurtuko leukez ikusteak iketzaz erretako beterik dagoan suti ta auspo aundiak sua ixiotuteko pafadak uraz noizean bein zipritunduta. Ikustekoa lau olagizon obrera esaten jakon ator luzeekin estaldurik idunetik oñetaraño, ikatz-auts ta kedarez arpegia, beso ta oiñak estalduta; kapel zikin koipetsuaz, ta barruan tximen belarrikoekin, baltzituta, izerdi ta auts deabruak berberak dirudie. Ikuspen orreikaz ikusle bariak zorabiraturik geratzen dira, batez be gabean sartu ezker, zarata aundiago ta sua be geiago ta olagizonak ikaragarriagoak ikusita; eta ikusle da-

nak bildurrezko bellegiz sutegiko sugarrak argi motela egitean.»

Olerkari, idazle, Bizkai-Jaunerriko edeslari Trueba'tar Anton'ek XV mendeko ipuin edo edesti baten bidez inoan ola-gizonak zelan lanerako erabilten eben eun gordinezko arkondarea, idunetik oñetaraño guztiz ostenduten ebazana eta zelan ikatz baltz eta izerdi askoz urturikoak olagizon arein arpegia ta begitarte moztu ta itxura-aldatzen zituan.

Euskalerriko burdin-olak XIV gizaldian Europa'ko errietakoak baiño eunkida bi lenago uren indarra erabilten ekien.

1338'an Naparra'ko Erregeak 28 burdin -ola eukazan. Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n bietakoak batu ezker, XVI mendean 300 baiño geiago ziran, eta euretan egindako burdiña Erdi-Ugarteko beste lurretara, Prantzia'ra, Flan-des'era, Italia'ra, Sizilia'ra, Asia'ra ta Ameriketara eroetan eben, gaurko kondaira-zaleak diñoenez.

* * *

Juan E. Delmas'ek 1860'an, margoztuten eban burdin-ola euskaldun bateko txingar-autsean polito erdierreta, makillan etxunda olagizona.

Erri aundi bateko erakus-toki edo Museoan ikusten doguz olagizonak euren lanerako erabilten zituen tresnak eta soiñekoak.

Margolarientzat balio gitxikoak izango dira, baiña antiñako burdin-oletan zelango soiñekoak, langaiak, zelako bizibidea egoan jakiteko egokiak dira.

Burdiña egiten eben burdin-ola jator eta berarizko arein orde, orain Ian on egiteko burdingintza aundiak sortu dira.

* * *

Burdiñearenagaz batera beste langintza batzuk be bagozan: ainguren egintza, itxasontzietarako tresnak, suzko izkilluak...

Burdin-Olako mailluen danbada-ostean, lurrun-makiñadun trena etorren.

ASTIRO

YURRETA'TIK

9.a

*Ekandu zarrak aurrez zirian
asaba zarren aldian,
euretariko bat izaten eben
goruetea arratsean.*

*Kurtzuluaren argi illunaz
auzoak alkartzen ziran,
agurtza deuna otoitz egi? az
lanean jarduten ziran.*


*Orain oster a argi ederragaz
geure begien aurrean,
arkal ikusi eziñik gabiz
anaiak Euskalerrian.*

*Au tamala ta samintasuna
daukagu geure biotzian,
oker-bidetik goyazalako
zuzen Joan biarrian.*

*Imiiti daigun geure abenda
zuzen da bide artezian,
orretarako biar dogu danok
jarraitu bide zuzenian.*

*Ta ikusikoguz lorturik geure
asaba zarren legiak
ta biziko gera euskaldun danok
lenauko lege zarrian.*

LONTZI



- 11 IZKI'koak
diario (los)
- 10 IZKI'koak
rectitud, honradez
soledad
- 9 IZKI'koak
enseñanza
cerveza
reloj
- 8 IZKI'koak
ligereza
dia siguiente
cercar, rodear
comarca
himno
agricultor

- 7 IZKI'koak
otoño
- 6 IZKI'koak
predilecto
fatuo
- la mayor parte
aparecer
propenso a crecer
muy bien
- 5 IZKI'koak
junio
directamente
- 4 IZKI'koak
arador (insecto)
tener
lado, costado


*haya (botanica)
conjunto, cuadrilla
hermano*

- 3 IZKI'koak
aca, aqui
natural de, oriundo de
llamamiento
sufijo que indica action
pino, reventon
aque!l
papilla (la)
villa, ciudad

- 2 IZKI'koak
agua, gusano
to (sujeto, agente)
all!

Corr;

8. ERANTZUNA



Orr1

IZKIRIMIRI TXARRAK

- Baña. zergaitik ezkututzen dozu aterkia?
Bazkaldarrak ikusi ez daioen.
- Baña bildurra daukazu baten-batek kenduko dautzula ala?
- Ez, baña bildurra daukot baten-batek ezagutzen ba dau.

Lagun bi euren emazteei buruz berba egiten dagoz. Batek diñotso besteari.
Nire emaztea oso ona da, baña aurrezlariegia da.
Zekena, ez da?
Huy! Sua amatetan dau, arrautzopillari bira emoten dautsonean.

Kaixo, Kepa, irurogei ogerleko bear dodaz eta ez dakit nundik atarako dodazan.

Ze ondo! Niri eskatzera etorriko ziñala uste neban.

Osaba zarrak bere loibari esan eutson:
Ia zelan zabilzan ikastolan, zenbat dira sei ta lau?

Amar.
—Oso ondo, artu eizuz amar pezetak.
Oh! Ori jakin ba'neu, berrogei esahgo neban.

Emakume zar bat egazkin baten bildurraren bildurras egoan.

Au ikusiaz, azafata batek esan eutson:
Trankil egon. Lemazaiñak 15.000 ordu egazka egin dauz.

Trankil? Orain len baño bildurrago nago.
Koitxaue! Oso nekatuta egongo da.

Astrid BARONA

EUSKERAZALEAK

ERDEL-ITZAK

Izkuntza gaztiak artzen dabez beste izkuntza batzutako berbak eta ba-dagoz «laterri-
arteko» diran berbak be.

Inglesak, esaterako, kanpotik artutako berbak % 80 ei dauz.

Gaztelereak, antxiñakoak asko eta asko daukaz, baiña oraintsu be artzen diardu.

* * *

Baiña izkuntzak kanpotik artutako berba moltzoaren geiegiari bildurra dautsoe, eta
ori izkuntza sendoak dirala.

Euskerea sendoa danik ezin esan izango dogu, eta orregaitik, atzerritarren berba geie-
gi artzea, gauza bildurgarria da gutzat.

* * *

Baiña non jarri mugea? Zeintzuk artu eta zeintzuk ez?

Erantzuna ez da
erreza. Latiñetik sortu-
tako izkuntzak bat lez
artzen dirala, lau izkun-
tzatan erabilten diran
izenak eta itzak onartu
leikezala esaten dabe
batzuk.

BOLETIN

BIZKAIA FILOSOFIA ETA
LETRETAKO ETA ZIENTZIETAKO
DOKTORE ETA LIZENZIATUEN
KOLEGIO OFIZIALA

COLEGIO OFICIAL DE
ORES. Y IDOS. EN
FILOSOFIA Y LETRAS Y
EN CIENCIAS DE VIZCAYA

AGERKARIA

* * *

Baiña onetan diran geiegikeriak ukatu eziñak dira.

Eredu lez, geiegikeria agertzeko bide lez, Bizkaiko Jakinzale ta Jakintzalari diran bai-
mendun eta Irakasleak ateraten daben aldizkariaren idaz-purua dakargu gaur. Argazki orre-
tan agiri dan lez, «Bizkaia filosofia eta letretako eta zientzietako doktore eta lizenziatuen kole-
jio ofiziala».

Ez dot uste iñongo euskaldunek itzulpen ori onartuko dauanik, eta lankide ta taldeki-
de dodazan baimendun ta irakasle lagunai aldatzeko eskatuko neuskioe.

* * *

Orrelan euskerea erreztu egiten dala diño batzuk. Bai, baiña ori, erreza izan arren, ez
da euskerea.

OLAZAR'tar Martin'ek

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larraátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia